

DEIALDIA ADMINISTRARI LAGUNTZAILE 1 KONTRATATZEKO, ALDI BATERAKO LAN KONTRATUAREKIN, ETA OPOSIZIO-LEHIAKETAREN BIDEZ.

OINARRIAK.

1. oinarria. Deialdiaren xedea.

Deialdia iragartzen da administrari laguntzaile 1 kontratatzeke, aldi baterako lan kontratuarekin, eta oposizio-lehiaketaren bidez. Bete beharreko eginkizunak lanpostuaren mailari eta kategoriari dagozkionak izanen dira, jendaurreko arreta eta udaleko administrazio-zerbitzuei laguntzea barne. Orobat, jarduerak eta kudeaketak udal bulegoetatik kanpo eginen ditu, behar izanez gero.

Lansaria: lanpostuak Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen D mailari dagozkion oinarrizko lansariak izanen ditu, gehi %12 (mailako osagarria), Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileriaren Estatutuaren arabera (1.393,09 euro gordin hilean).

Kontratuaren iraupena: Urte 1. Hilabeteko probaldia.

Euskara: C1 maila ahoz zein idatziz. Ondorioz, oinarri hauek euskaraz baino ez dira idatziko. Itzulpena eska daiteke.

Kontratazioak eginen dira Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen 251/2018 Ebazpenaren baitan (interes orokorreko edo sozialeko obra eta zerbitzuak egiteko langabeak kontratatzeagatik Nafarroako toki entitateei emanen zaizkien dirulaguntzen deialdia).

2. oinarria. Izangaiek bete beharreko baldintzak (eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean):

a) Espainiako herritarra izatea, edo Europar Batasuneko beste estatu batekoa, edo langileen joan-etorri askea aplikatzen den eremuko estatu batekoa, Europar Batasunak sinatu eta Espainiak berretsitako nazioarteko tratatuak direla medio.

Espainiarren eta Europar Batasuneko beste estatu bateko edo aipatu nazioarteko tratatuek ukitutako estatuetakoa herritarren ezkontideek ere parte har dezakete, zuzenbidez bereizita ez badaude. Era berean, haien ondorengoek eta ezkontidearenek, legez bananduta ez badaude, hogeita bat urtetik beherakoak badira, edo gorakoak, haien kontura biziz gero.

b) Hamasei urte beteak izatea eta nahitaezko erretiroa hartzeko ezarritako adina gaintua ez izatea.

c) Eskola-graduatuaren titulua, Lanbide Heziketako lehen mailakoa edo baliokide bat izatea, edo izateko moduan egotea (titulu hori eskuratzeko eskubideak ordaindu izanaren frogagiria).

Atzerrian lortutako tituluak badira, homologazioaren frogagiria eduki beharko du.

d) Lanpostuaren eginkizunak betetzeko behar diren gaitasun fisikoak eta psikikoak izatea.

e) Eginkizun publikoetan aritzeko ezgaitua edo gabetua ez egotea, eta administrazio publikoren baten zerbitzutik bereizia ez izatea, ezta diziplinako kaleratze bidez bidalia ere.

Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek zinpeko aitortpena edo hitzematea aurkeztu beharko dute, adierazteko ez dutela beren estatuan funtzio publikoan sartzea galarazten dien diziplina-zehapenik edo zigor penalik.

f) Euskararen ezagutza maila kreditatzea -C1- honela:

- C1 mailako agiria edo baliokidea aurkeztu eskaerarekin batera;

- edota, jakite-maila egiaztatze probak gainditzea.

g) Enplegu-eskatzaile gisa inskribatuta egotea Nafar Lansareko enplegu bulego batean eta dagokion zundaketan sartua egotea. Kontrataziotik kanpo geldituko dira Berako Udalak ekitaldi berean edo aurrekoan hiru hilabeteko eperako edo hortik gorako beste epe baterako 1. oinarrian aipatutako deialdian edo antzeko edozein deialdiren babesean kontratatu dituen pertsonak.

3. oinarria. Eskabideak.

3.1. Eskabideak Berako Udaletxeko Erregistroan aurkeztu behar dira edota 39/2015 Legeko 16.4 artikulua jartzen dituen baliabideak erabilita.

“Correos”eko bulego batean aurkeztuz gero, kartazal ireki batean sartu beharko du eskaera, ziurtatu aurretik datatu eta zigilatua ahal izateko.

Agiriak Administrazio Prozeduraren Legeak baimendutako gainerako bideren bat erabiliz aurkezten badira, eskatzaileak eskabidea igorri dela jakinaraziko dio administrazio kontratatzaileari posta elektronikoz (bera@bera.eus), eskabideak aurkezteko epearen azken eguna eta ordua baino lehen.

Bi baldintza horiek betetzen ez badira, eskaintza ez da onartuko, baldin eta kontratazio organoak oinarri hauetan aipatutako epea amaitu ondoren jaso badu.

Dena den, aipatutako epea igaro eta hurrengo hiru (3) egun naturalak igaro ondoren dokumentaziorik jaso ez bada, orduan ez da dokumentazio hori inola ere onartuko.

3.2. Eskabideak deialdi honen I. eranskinean agertzen den ereduaren arabekoak izanen dira, eta haietan izangaiek adierazi behar dute betebeharrak guzti-guztiak betetzen dituztela eskabideak aurkezteko epearen azken egunean.

3.3. Epea: interesdunek eskabideak aurkeztu ahalko dituzte **2023ko otsailaren 15a arte**. Egun hortako ordu hauetan bukatuko da epea kasu guztietan: **13:30**.

3.4. Eskabidearekin batera dokumentazioa konpultsatua aurkeztu behar da: NAN, 2 c), f) oinarrietako titulu eta agiriak (edo titulu horiek eskabideak aurkezteko epea bukatzen den

egunean eskuratzeko baldintzak betetzen dituela frogatzen duen agiria), eta deialdi honen oinarrien arabera baloratu beharreko merezimenduak.

3.5. Minusbaliotasuna duten izangaiek minusbaliotasun-egiaztagiria aurkeztu beharko dute parte hartzeko eskabidearekin batera, organo eskudunak emana, eta, horrekin batera, ziurtagiri mediko bat aurkeztu beharko dute, egiaztatzeko desgaitasun hori ez dela lanpostuan normaltasunez jarduteko ezgaitzen duen gaixotasun edo akats fisiko edo psikiko bat.

4. oinarria. Behin-behineko zerrendak.

Eskabideak aurkezteko epea amaituta, Berako Udaleko alkateak ebazpena emanen du izangai onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda onesteko, eta jendaurrean jarriko da Berako Udalaren iragarki-taulan, bai eta Udalaren web-orrian ere. Taulan jartzen denetik hasita, izangaiek hiru egun balioduneko epea izanen dute erreklamazioak aurkezteko edo eskabidean egindako akatsak zuzentzeko. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin-behineko zerrenda behin betiko bihurtuko da, eta argitaratzen den egunetik aurrera izanen ditu ondorioak.

Onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrendarekin batera, euskara proba, hala badagokio, eta deialdi honetan aurreikusitako hautaketa probak egiteko eguna eta tokia jakinaraziko dira Berako Udalaren iragarki-taulan eta web-orrian.

5. oinarria. Behin betiko zerrendak.

Erreklamazioetarako epea bukatutakoan eta haiei erantzun ondotik, alkateak ebazpena emanen du, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onesteko, eta taulan eta udal web-orrian argitaratuko da.

6. oinarria. Epaimahai kalifikatzailea.

6.1. Honako kide hauek osatuko dute epaimahai kalifikatzailea:

- Epaimahaiburua: Aitor Elexpuru Egaña, Berako Udaleko alkatea.
Ordezkoa: J. Esteban Aguirre Zubieta, Berako Udaleko alkateordea.
- Mahaikidea: Miguel J. Belarra Tellechea, Berako Udaleko idazkaria.
Ordezkoa: M. Jose Larrayoz Ariztegui, Lesakako Udaleko idazkaria.
- Mahaikidea: M Dolores Oyarzabal Zubieta, Berako Udaleko kontu-hartzailea.
Ordezkoa: Gonzaga J.Aristondo Cartagena, udal arkitekto teknikoa.
- Mahaikidea, Berako Udaleko langilegoa ordezkatzuz: Mattin Leiza Larralde, udal agentea.
Ordezkoa: Gemma Mitxelena Agesta, Berako Udaleko administraria.

6.2. Epaimahaia ezin izanen da eratu, ezta jardun ere, gutxienez kideen gehiengo osoa bildu gabe. Idazkaria izendatuko da kideen artean. Epaimahaiak gehiengoz ebatziko ditu deialdiko oinarrien interpretazio eta aplikazioari buruz sortzen diren gorabeherak. Epaimahaiak aholkulari adituen laguntza izan dezake proba batzuetan nahiz guztietan.

7. oinarria. Probak.

7.1. **Euskara proba.** Baztertua izanen da eta C1 agiria edo balioidea aurkeztu ez duten hautagaiei eginen zaie.

Euskarabideako teknikariek azterketak eginen dituzte eskatutako hizkuntza jakite maila frogatzeko. “Gai” edo “ez gai”tzat hartuko dira hautagaiak. Proba gainditu beharko da gainerako probak egin ahal izateko. Egitera aurkezten ez direnak baztertuak izanen dira.

7.2. **Proba teorikoa:** ariketa bakarra eginen da, eta izangaiek II. eranskineko gaitzerrendako gai buruzko test moduko galdera-sorta bat idatziz erantzun beharko dute. Galdera-sortako galdera guztiek erantzuteko hiru aukera edo gehiago izanen dituzte, eta horietako bakarra izanen da baliozkoa. Galdera guztiek balorazio berbera izanen dute. Izangaiek ariketa egiteko izanen duten gehieneko denbora ariketa hasi aurretik epaimahaiak ezarritakoa izanen da.

Ariketaren balorazioa 50 puntukoa izan daiteke gehienez, eta baztertua geratuko dira eskatutako gehieneko puntuazioaren erdia, gutxienez, lortzen ez duten izangaiek.

Azterketarako deialdia deialdi bakarraren bidez eginen da, eta pertsona bakoitzak Nortasun Agiri Nazionala edo epaimahaiak nahikotzat jotzen duen beste identifikazio-agiri bat eraman beharko du berekin. Agertzen ez diren izangaiek oposiziotik kanpo geratuko dira.

Hautaprobak egiteko, desgaitasun aitorturen bat dutenendako bidezkoak diren denbora eta baliabide egokitzapenak jarriko dira, eskabidean azaldutakoaren arabera.

Ariketa plika itxien sistema erabiliz eginen da eta haien irekiera publikoa izanen da. Ekintza horren ondoren, izangaien zerrenda, bakoitzak lortutako kalifikazioarekin, iragarki oholean eta Udalaren web orrian iragarriko da.

7.3. **Merezimenduen balorazioa:** deialdi honetako izangai guztiek, oinarri hauetako zehaztapenei jarraikiz merezimenduak dituztela uste badute, agiri bidez frogatu behar dituzte parte hartzeko eskabidea aurkezten dutenean. Epaimahaiak izangaiek aurkezturiko merezimenduak baloratuko ditu ondoko baremoaren arabera eta, osotara, ez da inoiz 20 puntu baino gehiago emanen. Horrela zenbatetsiko dira merezimenduak:

a) Administrazio publikoetan administrari laguntzaile edo administrari ofizial lanpostuetan emandako zerbitzuengatik: urte bakoitzeko 4 puntu.

b) Administrazio publikoak izan gabe beste enpresa batzuetan administrari lanpostuetan emandako zerbitzuengatik: urte bakoitzeko 2 puntu.

Aipatutako balorazio-irizpideak aplikatzeko, honako arau hauek hartuko dira kontuan:

- Baloratu beharreko urte-kopurua osoa ez bada, dagokion proportzionaltasuna aurkituko da.

- Lana egin bada osoa baino lanaldi laburragoetan, hainbanaketa eginen da dagokion heinean.

- Ez dira bi aldiz ebaluatuko baremoko talde berean sartutako zerbitzuak, baldin eta aldi berdinetan gauzatu badira.

- Balorazioa egiteko, deialdia argitaratzen den egunera arte emandako zerbitzuak hartuko dira kontuan.

8. oinarria. Kontratazioa egiteko izangaien zerrenda.

8.1. Izangaien kalifikazioa bukatu, epaimahaiak aldi baterako kontratazioa egiteko izangaien zerrenda argitaratu emanen du Berako Udaletxeko taulan eta web-orrian, lortutako puntuaren arabera.

8.2. Berdinketa egonez gero, azterketa teorikoan lortutako puntuazioaren arabera erabakiko da. Hala ere, berdinketa mantenduz gero zozketa egingen da.

8.3. Izangaien zerrendan hurrenkera jartzeko kontuan hartuko da oposizio-lehiaketan lortutako puntuazioa (handienatik hasita).

8.4. Epaimahaiak alkateari bidaliko dio prozeduraren ostean osatutako zerrenda, kontratazioa egin ahal izateko.

9. oinarria. Datuen babesari buruzko informazioa.

Datuen tratamenduaren arduraduna

Identitatea: Berako Udala.

Helbidea: Herriko Etxeko plaza 1, 31780, Bera

Telefonoa: 948 630005

Posta elektronikoa: bera@bera.eus

Datuak babesteko ordezkaria: dpd@bera.eus

Helburua: Enplegu deialdiak kudeatu, botere publikoen erabileraren baitan.

Oinarri juridikoa: 251/1993 Foru Dekretu Legegilea, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileriaren Estatutuaren Testu Birbildua onesten duena.

Datuak mantentzeko denbora: Datuak gordeko dira aipatutako helburua lortzeko behar den denborean eta Udalak tratamenduari buruzko erantzukizunak dituen bitartean. Gainera, Artxibo eta dokumentuei buruzko apirilaren 4ko 12/2007 Foru Legean araututakoa bete behar da.

Datuen hartzaileak: Datuak eman ahalko dira epaile eta auzitegiei, indarrean dagoen legedia konplutuz, eta argitaratuko dira udal web orrian eta iragarki oholetan, deialdian ageri den bezala.

Eskubideak: Sarbide, zuzentze eta baliogabetze eskubideak lehen aipaturiko helbidea erailiz. Gainera, erreklamazioa aurkezten ahal da Datuen Babeseko Espainako Agentziaren aurrean: Jorge Juan, 6, 28001 (Madril) edota www.agpd.es

10. oinarria. Errekurtsoak.

Deialdi honen oinarrien aurka edo berau aplikatzeko egintzen aurka, hautara, ondoko errekurtsoetako bat aurkez daiteke:

a) Berraztertze errekurtsoa, egintza burutu duen organo berari zuzendua, hilabeteko epean, hura jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.

b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari zuzendua, bi hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik hasita.

c) Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, erabakia argitaratu edo errekurritu nahi den ekintza jakinarazten denetik hasita.

Gainera, epaimahaiaren egintzen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkezten ahalko da, berako Udaleko alkate udalburuari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazi ondotik.

Bera, 2023ko urtarrilaren 31.

Alkatea,
Aitor Elexpuru Egaña.

ERANSKINA ESKABIDE EREDUA

DATU PERTSONALAK:

Izen- abizenak:.....

NAN edo baliokidea: Jaiotze data:.....

Non jaioa:.....(.....) Nazionalitatea:.....

Helbidea:.....

Herria:.....Probintzia:..... Posta kodea:.....

Telefonoak:..... Posta elektronikoa:.....

ADIERAZTEN DUT:

- Lanpostuan aritzea galarazten didan eritasun edo urritasun fisiko edo psikikorik ez dudala.

- Indarra duten xedapenetan ezarritako ezintasunetako bakar bat ere ez dudala.

- Ez nautela ezein Administrazio Publikoren zerbitzutik bereizi disziplina espediente bidez, eta ez nagoela ezgaituta eginkizun publikoak betetzeko.

- Deialdiaren 2. oinarrian eskatutako titulazioaren frogagiria aurkeztu dudala.

- Ezarritako baldintza guztiak betetzen ditudala, eskabideak aurkezteko epeaken azken egunerako.

– Euskara maila frogatzen dut. (*Adierazi X batez zein den*).

– Euskara proba egin behar dut. (*Adierazi X batez zein den*).

ESKATZEN DUT:

Hautapen probetara onartua izatea, administrari laguntzaile 1 kontratatzeko, aldi baterako lan kontratuarekin.

(Eguna eta sinadura)

BERAKO UDALEKO ALKATEA.

II. ERANSKINA

Gai-zerrenda

- 1.- Jendeari arreta emateko oinarrizko arauak.
- 2.- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa. Interesdunak. Administrazio publikoen jarduera: arau orokorrak, baldintzak eta epeak. Administrazio-egintzen baldintzak, eraginkortasuna, deuseztasuna eta deuseztagarritasuna. Prozeduraren bermeak, hasiera, antolaketa, instrukzioa, bukaera, tramitazio sinplifikatua eta betearazpena.
- 3.- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa: oinarrizko ezagutzat egoitza elektronikoa eta sinadura digitalari buruz.
- 4.- Berako bide publikoetan pasabidearen lizentziak arautzen dituen udal ordenantza.
- 5.- Tresna informatikoak: Word, Excel, Access, Internet, Posta elektronikoa.
- 6.- Bera herriari buruzko ezagutza: karrikak, parajeak, mendiak, eraikuntzak eta zerbitzuak.

EGINBIDEA: Jasota uzteko agiri hau urtarrilaren 31ko 15/2023 Alkatetzaren Ebazpenaren bidez onartu dela.

**Bera, 2023-01-31.
SINADURA DIGITALA.
IDAZKARIA,
Miguel J. Belarra Tellechea.**